Lehen harreman horren arabera erabakitzen du begira dagoenak begira jarraitzea ala aurrera egitea. Horixe da lehen urratsa. Lana “biltzeko” modu zehatz bat eragin zuten beharrei buruzko informaziorik ez badugu —bai estutasunagatik bai ez-jakintasunagatik— azal bati (edo makillaje bati) begira geldituko ginateke, besterik gabe, azaleko interpretazioa eginez bakarrik, hala erabaki dugulako, utzikeriagatik nahiz ez-jakintasunagatik zeharkaezina bihurtzen den horma zeharkatu gabe. Bi urteko umeak opari bat jasotzean egingo lukeen interpretazio berdina da hori, bere interpretazio onberenean. Umea kartoizko kaxarekin jolasten hasten da, gurasoek kaxa irekiarazten dioten arte, barruan zer dagoen ikusi eta gurasoek benetako jostailutzat, benetako oparitzat dutena eskertu dezan.

Ezin dut esan halako bekatuen errugabea naizenik. Ez dut uste berrehunen bat lanez osatutako erakusketa (on) baten aurrean, ordu eta erdi baino gehiago emango nukeenik erakusketa hori ikusten. Lan bakoitzeko 27 segundoko batez bestekoa uzten digu horrek, non eta behar baino denbora gehiago eskatzen duen bideorik ez dagoen tartean. Lan batzuek segundo gehiago eskatuko dizkidate, eta beste batzuk baztertu egingo ditut lehen begiratuan. Ez nabil, beraz, bi urteko umearengandik oso urruti. Dena den, badago alderik hemen, izan ere, artista naizen aldetik, Superman-ek zuenaren antzeko begirada erradiografikoa erabiltzen dut, lanak biltzen dituen “oparitarako paper” moduko hori (lanen osaera, akabera eta artistaren esku ona) zeharkatzeko, eta, gainera, artistek badakite ikusleak ipurtarin samarrak izaten direla eta haiek limurtzeko kode zehatzak erabiltzen dituzte, ondorioz. Halere, esango nuke gauzei umeen begiradaz begiratzen diegula den-denok (aditu izan ala ez).

Horrenbestez, artelanei egiten diegun azaleko hurbilketa, hitzaren esanahi literalena hartuta, gertakari bat da eta hainbat ondorio ditu. Ez da, aurreko kasuetan bezala, lanarekin berarekin eratzen den komunikazio osagabearen edo etendako komunikazioaren adibidera mugatzen soilik. Batetik, darabilen hizkera kudeatzera behartzen du artista, lanak begiratzeko dagoen denbora urriaz jabetuta. Baina, horrez gain, beste ondorio batzuk ere badauzka, artea kulturen arteko komunikazio-tresnatzat erabiltzen denean. Arteak kulturen arteko mugak zeharkatzen dituenean norabide askotan doan fluxu baten modura ibili daiteke, eta hori ona da kulturarako, edo infiltrazio baten antzera jardun dezake, fluxu hori norabide bakarrekoa bada. Horixe da trukearen eta kolonizazioaren arteko aldea, hain zuzen ere. Artelanaren interpretazioak edo interpretaziorik ezak hortxe uzten dio ekintza onbera izateari, eta komunikazioa desbideratzen du, interes jakin batzuei erantzuteko. Kolonizazio-prozesuak boterea duen zonak baldintzatutako proiektzioa izango duen interpretazioa sortzen du eta artistak proiektzio hori aurkezteko moduarekin bat etortzera behartzen saiatzen da. Artearen begirada arkeologikoa deitu nahi nukeena

sortzen da horrela. Bilgarriaren aurrean jarrita, zenbat ondorioztatzen duen eta zenbat proiektatzen duen zehazki jakin gabe, egiazkotzat hartuko dituen ondorio orokorrak ateratzen dituen begirada da hori. Ondorio horiek iturrietara eramango ditu gero, beren diskurtsoa egokitu dezaten.

Begirada horrek bultzatzen dituen dinamiketako bat hauxe da: artea balio absolutuen hizkuntza unibertsala delako sinesmena. Sinesmen horrek halako kutsu paternalista dauka. Unibertsaltasunak finkatuko lituzkeenak baino askoz eduki eta ebokazio partikularragoak daudela eta artelanak zentzua eta eragina izatekotan haiek ezinbestekoak direla ahazten du ikuspegi horrek. Edukiak saihestu eta ebokazioa zapuztu nahi direnean ere, biak ere hortxe jarraitzen dute esku hartzen saiatzen. Testurik ez dagoenean, beti dago hor azpitemsturen bat, eta gero beste azpitemstu bat haren azpian, eta horrela hurrenez hurren.

Azpitemstu horien presentzia aktiboak gainulertuek mugatzen duten testuinguru batean ainguratzen dute artelana. Artelanaren bidez komunikatzen denak (artista izan ala ez) zehaztu duen publikoari eskuragarri zaizkion gainulertuak dira horiek. Eta, horrela, hizkuntzarik unibertsalenean ere dialektotan banatuta bukatzen dute beti. Elementu horiei muzin egiteak testuinguruaren aldaketak egiteko aukera ematen du, lanaren itxuraldaketa edo distortsioari jaramonik egin gabe, eta hala itxuraz koherenteak diren arren jatorritik eta beren eragin osotik bereizita dauden interpretazioak agertzen zaizkigu. Interpretazio osagabeak inposatzen dira eta horixe da nik hemen begirada arkeologikoa deritzodanaren ondorioa: nolabaiteko bitartekari baldarra dagoela, faltsua ere badena batzuetan.

Artelanak adierazitako arazoak kolektiboak direnean eta artelana jatorrizkoa ez den kolektibo batek jasotzen duenean sartzen da begirada arkeologikoa. Kasurik onenean ere, begirada arkeologiko hori berez zegoen asmoa zein zen argitzen saiatzen da, formaren gaineko interpretazioaren bidez. Baina begirada hori arkeologikoa da, eta ez deskodetze-prozesu bat (artea arte hori sortu duen kulturaren barruan interpretatzen denean gertatu ohi den bezala). Bi arrazoirengatik gertatzen da hori: lehenik eta behin, interpretazioa kutsatuta dagoelako irakurlearen proiektzio eta interesen ondorioz; bigarrenik, kulturen arteko bidaia gainditzen ez duten gainulertuak daudelako.

Irudi luke kultura global uniforme baterantz joateko bultzada arazo horiexek konpontzen saiatzen dela. Denok kultura berean bizi baldin bagara, elkar-ulertzea guztiz lubrikatuta gelditzen da, proiektzioek edo gaizkiulertuek eragindako oztoporik gabe. Begirada arkeologikoa ezabatu, gainulertuak partekatu eta deskodetze purura pasako ginateke. Aldarrikatzen den balio absolutuko arte unibertsal hori lortuko genuke orduan.

Paradoxikoki, ordea, nazioarteko maila duen arte baterantzko bultzadak ez du nahi den “kolektibo handi” hori osatzen. Kolektibitate txikiak suntsitzea da lortzen duen bakarra.

Ukaezina da arte unibertsalak muga kultural eta geografikoetatik askatuko lukeela artea. Dena den, kontuan hartu behar dugu gure kultura kapitalista eta lehiakorretan, artea, funtsean, adierazpen indibidualista baten emaitza deneko aurre-suposizio ideologikoa dagoela. Adierazpen horien metaketaren batez besteko estatistika da konfigurazio kulturala. Horregatik, artearekin bat etorritz lortu nahi den komunitate global hori gizabanakoen metaketa baino ez da. Estatistiketan kolektibitate boteretsuak lehenesten direnez, definizio honetan etnozentrismoa eta distortsio ideologikoa dauzkagu, hasieratik bertatik. Mundua komunitate erako egitura bat izan beharrean, badirudi indibidualitatean oinarritutako gizartea izatera bideratuz doala pixkana-pixkana. Hala eta guztiz ere, mundu polikultural batean bizi gara oraindik, eta indibiduala eta kolektiboa denaren eta bien arteko mugen gaineko ikuspegi desberdinak dauzkagu. AEB Kanadarekin edo mendebaldeko Europarekin alderatuta ere —ekonomikoki eta kulturalki AEBengandik

gertuen dauden bi zonak diren aldetik— ez ginateke profil bateratu batera iritsiko. Eta arazo hori larriki areagotzen da herrialde garatu gabeak eta garatuak alderatzen baditugu, eta zer esanik ez “artearen” definizio operatibotik baztertuta dauden tribu-gizarteak kontuan hartuz gero.

Indibidualitateak metatuz osatutako gizarte global bati buruzko ikuspegi horretan diharduen ideologia XIX. mendeko indibidualismo kapitalista liberalaren luzapena besterik ez da, berez. Garai hartan bohemiaz eta erromantizismoz mozorrotzen zen definizio hori eta, gaur egun, kontrolik gabeko enpresa librearen zenbait ezaugarri ditu. Benetako adierazpen indibidualaz hitz egitea galarazten digu horrek askotan, edo pixka bat gorago joaz, ezagutza ikertzea eta zabaltzea ere eragozten digu (horixe izan arren, azken batean, artearen benetako egitekoa). Aldiz, ikuskizuntzarraren noziora jo behar dugu eta horretara mugatu. Bizitasun handiko estimuluen bilaketarekin uztartutako formalismoaren emaitza da ikuskizuntzar hori, hizkera kuratorialean “formatu handiko ideia txikiak” izendatu genezakeenez osatuta dagoena. Berez trinkotasunari eta konplexutasunari dagokien lekua betetzen du konbinazio horrek, eta bere emaitzak ez du ezer ikustekorik ez adierazpenarekin, ez ezagutza kolektiborako ekarpenekin ere. Dena den, testuinguruaren gaineko eztabaidara itzuliz, testuinguru horrek eragina du eduki eta ebokazioetan, eta haiek, berriz, lokalismo ezin zurrunagoak islatzen dituzte, ezinbestean. Duela urtetxo batzuk, Hego Amerikako artista batek Ipar Amerikako galerista bati xehetasun guztiekin azaldu zion bere koadroetan ama-esnea nola erabiltzen zuten. Galeristak arretaz entzun zion eta handik pixka batera bota zuen: “Inoiz bururatu al zaizu pintura akriliko zuria erabiltzea?”. Santeriako erritoak jarraitzen zituen Juan Francisco Elso Padilla kubatar artistak, berriz, bere eskulturen barrenak bere odolarekin “prestatu” ohi zituen. Bere lagun santeroek halakorik ez egiteko esaten zioten arren egiten zuten hori, haien arabera gauza batzuk ez baitira egin behar, ondo-ondo menderatzen ez badira. Baina haietako inork ez zuen proposatu pintura akriliko gorria erabiltzerik. Gizartea indibidualitateen metaketa deneko kontzeptua gero eta gehiago hedatzen ari da eta komunitatearen loturak higatzen ari da, inondik ere. Horrekin ez da lortzen mundua ulermenaren bilaketa komun batean bateratzerik. Elkarrizketa adeitsuz mozorrotutako eguneroko ulertezintasuna eta kontsumoaren bidezko loturak dira gelditzen diren gauza bakarrak. Artean zer egin daitekeen eta zer ez erabakitzen duen hizkuntza pobretu eta eskematiko batera iristen gara horrela. Horren ondorioz, berehalako eraginari, esaldi bakar batean dena argitzen duen mezuari eta baliabide teknikorik burutsuena erabiltzeari ematen zaie lehenetsuna. Eta hori ez da ideologia jakin batekin zerikusia duen arazoa, hots, atzerakoiak eta aurrerakoiak bereizten dituen arazoa. Gizartea sustatu eta eraldatu nahi dutenen eta aldaketarik gabe jarraitzea nahi dutenen nahiz irabazi asmoz jarduten dutenen artean aurkitzen dugu simplekeria hori. Ez da izan azpian datzan asmoa estutuz eta eskematizatuz joan dena, erabilgarri dagoen hizkuntza (eta kultura) eta haren espetze gisa diharduen zerumuga baizik.

Dialektoak gordetzea eta babestea erresistentzia-ekintza bihurtzen da orduan. Dialektoak ez du ezinbestean isolamenduaren ikur izan behar, komunitate-mailako komunikazio-lotura ere azpimarratu dezake, berehalako egoera ukigarriei erantzunez. Egia da dialektoak sortzen dituen prozesua ama-hizkuntzaren deformazioa ere badela. Baina, eta hau garrantzitsuagoa da, ama-hizkuntzaren esparruaren baitan diharduten azpitaldeen ohitura eta beharrek hizkuntzan duten isla eta talde guztiek botere-egituretatik kanpoko beren eguneroko jardunean garatzen duten autonomia kulturala definitzen duten alderdietako bat ere badira dialektoak. Horregatik egon izan dira historian zehar hizkuntza debekatuak eta derrigorrezkoak, eta horregatik gertatzen da

kultura bat txikitzen eta desagerrarazten denean hizkuntzak ere desagertzea, hizkuntza horiek gordetzen zuten ezagutza guztiarekin batera. Batzuetan dialektoa hizkuntza bereizia ere bihurtu daiteke azkenerako, bere ama-hizkuntza izan zen harekin komunikatzeko ahalmena izaten jarraitu arren. AEBetan harrotasunez esaten dute oraindik ingelesez hitz egiten dutela. European, berriz, AEBetako ingelesetik itzulitako lanen itzulpenetan “amerikar ingelesetik itzulia” oharra jarri ohi dute. Interesgarria da bereizketa hori, hizkuntzaren nolabaiteko bereganatzea desmitifikatzen duelako, batetik, baina, bestetik, Iparraren amets inperiala errespetatzen da, “amerikar” hitzaren adiera kontinentalera erabiltzen baita. Dialektoak sortzeko (eta desagerrarazteko) prozesua artean ere gertatzen da, nolabait. Jatorrizko dialektoaz haraindi doazen zentzu ulertu batzuk daude eta begirada arkeologikoa argitzeko gai ez den gainulertuak daude, bestalde. Hortxe sortu genezake, beharbada, artisten sailkapen berria, arazo horiei erantzunez. Tokian tokiko gainulertuak minimizatzen saiatzen diren artistak dauzkagu, tokian tokiko horretatik haratago jo eta begirada arkeologikoa begirada objektibo bihurtzeko asmoz. Talde horretan horixe lortzen dutenak eta lortu uste dutenak dauzkagu: azenturik gabe hitz egiten bukatzen dutenak eta azentu nabarmena duten arren horretaz konturatzen ez direnak, alegia. Ingeles ezin hobea hitz egin arren azentu alemana baztertu ezin zuen Henry Kissingerren adibideak ederki erakusten digu hegemoniak bere “bertakoak” nola lehenesten dituen. Bertako hegemonikotzat hartuak izatea lortzen dutenen artean ere bi multzo dauzkagu: hori guztia balio-eskala hegemonikora egokitzeko besterik egiten ez dutenak, batetik, eta balio orokorreko arazoak jorratzen dituztenak, bestetik. Azken horientzat dialekto arrasto txikiena ere komunikazio perfekturako oztopoa da. Bestalde, komunitateko loturak sendotzen eta gainulertuak lantzen diharduten artistak daude. Haientzat komunikatzeko modu horren funtsezko osagaia da dialektoa. Eta hementxe sartzen da nortasunaren gaia, dramatismo handiz sartu ere. Komunitatea elikatzen eta egituratzen duten loturak sendotzearen dialektoa lantzen eta hobetzen duten artistak dauzkagu hemen. Nortasun kolektiboak moldatzen laguntzen dute horrela. Nortasunaren alderdi dagoeneko ezagunak hartu eta alderdi horiek zentro hegemonikoetan dagoen eskari multikulturaleko kuotak betetzeko erabiltzen dituzten artistak daude, bestalde. Nolabaiteko oreka ekologiko hauskorra dago honetan guztian, eta oreka horretan boterearen gehiegikeria eta okerreko erabilera guztiek goitik behera botatzen dute komunitatearen eraikin kulturala, beste kultura artifisial batekin ordezkatur. Botere hegemonikoaren eta aipatu dugun ordezkapen-prozesuaren indarraren sintometako bat hauxe dugu: arteari buruzko eztabaida asko eta asko, hegemoniarekiko erresistentziari buruzko eztabaida bera ere bai, noski, zentro kulturalen inguruan egiten direla. Kultura ez-hegemonikoen arteko erlazio horizontala bigarren mailan geratzen da horrela. Funtsean, alderdi hauek guztiek lotura estua dute botere-banaketak jarduten duen moduarekin eta, hori dela eta, askotan lotura sendoagoa dago kultura-adierazpenari dagokionez itxuraz elkarrengandik urruti egon arren botere-maila bera duten edo ez duten zonen artean, boterea dutenen eta ez dutenen artean dagoena baino. Utzikeria larria dago, beraz, elkarrekin hizkuntzaren bidez komunikatu ez arren gainulertu batzuk partekatzen dituztelako kultura periferikoek. Eta bestetik hizkuntza bera darabilten kulturek ulertzen ez dituzten gainulertuak ere badauzkate. Okupazio, esplotazio eta menderakuntzek eragindako oinazeak gertutasun geografikoak edo hizkuntza komunak sortzen dituenak baino senide-lotura estuagoak eratzen ditu askotan. Artea arazoei erantzuteko, arazoak konpontzeko eta proposatutako soluzioei forma emateko metodologia dela onartzen badugu, arazoak bizitzeko izandako batasuna da oihartzun-kutxa sortzen duena, eta ez

erabilitako baliabide formalen arteko antza. Kutxa horretan berbertako gainulertu batzuek —testuinguru jakin batetik kanpo guztiz ulertzen ez badira ere— beste testuinguru bat sortzeko palanka gisa jardun dezaketen metaforak dakartzate gogora, oraindik ere. Baina hala eta guztiz ere, eta kasu horietan ere, beti gelditzen da zeharkatu ezinezko zona bat. Artelan gehienak aipatu ditugun kategoria edo maila guztietan sortzen diren zona lauso batzuetan mugitzen dira, eta artelanak hasieran lortu nahi zuen benetako oihartzuna hortxe galtzen da, begira dagoenarentzat. Egoera politikoa mende Erdiko aldearekin errepikatzen dela dirudien arren, belaunaldiek gauzak ulertzeko duten modua eta estrategiak ezin dira orduko berberak izan, eta berrasmatu egin behar dira, kopia behar. Gauza bera gertatzen da artean, esparru horretan egoera objektiboak ez ezik egoera hautemateko eta kontestualizatzeko moduak ere baldintzatzen baitu erantzun artistikoa. Behatzailearen adeitasuna denboran zehar bidaiatu daiteke, baina jarraitzailearen proiektzioaren gainean joango da ezinbestean. Orduantxe da garrantzitsua presentzia literala eta palanka gisa erabilitako metafora ondo bereizten jakitea. Gure mendebaldeko kulturetan, iraultzarako tresna da artea (gizartearen eguneroko funtzionamendua lubrikatzen duten konbentzio eta estereotipoak iraultzen ditu, hautemate freskoak eta liluratzeko ekintza saihesten saiatzen baita eguneroko jardun hori). Presentzia literalera mugatutako interpretazioak, begirada arkeologikoak sortutako interpretazioak, metafora iraultzailea egoteko aukera ezabatu ohi du. Artelanak ontzi itxiztat hartzeko tradizio hegemonikoa denok daukagu barneratuta, hein batean, eta, hala, ez dugu ulertzen artelan horiek oihartzun-kaxa zehatz eta jakin baten barruan jotzeko diseinatutako soinu baten modura funtzionatzen dutela. Kaxa hori aldatzen badugu (kultur kontestua kasu honetan), soinua ere aldatu egiten da. Gai hau askoz haratago doa, ordea, eta artista nor den eta haren zeregina zein den definitzeraino ere iristen da. Begirada arkeologikoaren arazoak ez dira sinplifikazio formalera eta azaleko interpretazio tematikora mugatzen. Zenbait kultura eta ekonomiatan nagusi den profesionalismo artistikoaren era askotako definizioa zehazki ulertzeko ezintasunak ere eragina dauka honetan guztian. Hala, aurrera egin ahal izateko astean zehar bi lanbide dituen eta, hortaz, artea sortzeko asti askorik ez duena “igandetako artistatzat” jotzen da zentro kultural nagusietan. Igandetako artista izateak egoera sintomatikoa dakar, eta egoera horrek zenbait alderdi interesgarri ditu, kontzeptua bera irudikatzen duen ideologia izanik, hain zuzen, alderdi horietako bat. Ideologia horri jarraiki, objektu merkantilen sortzailea da artista, eta bere bizitzako denbora gehiena lan horretara eman ezean, sortzaile profesionaltzat hartua izateko eskubidea galtzen du. Arteari bere denboraren zati bat bakarrik emateak azaleko amateurra bihurtzen du artista hura, eta haren jarduera zaletasun edo denbora-pasa soila bihurtzen da. Hala eta guztiz ere, gizarte ez-aberatsetan artistatzat hartzen dira artelanak beren denbora librean baino sortzen ez dituzten pertsonak, eta ez izen horren lapurtzat. Gizarte horietan sinonimoak dira “artista” eta “igandetako artista”, eta aldiro-aldiro beren lanak jendaurrera ateratzea da artistok bete beharreko baldintza bakarra. Zentro kulturaletan, bere lanak erakusketetan maiz erakusten ez dituen artista merkatutik kanpo gelditzen da (porrot egiten duten enpresa komertzialak bezalaxe); beste gizarte apalagoetan, aldiz, behar beste konfiantza dago bai artistaren jardueran bai harengan berarengan, hark bere ospeari eutsi ahal izan diezaion. Konfiantza horrek ideologia jakin bat islatzen du: artista gizarteko kide deneko ideologia, eta ez merkatuko kide, ezinbestean. Gizarteko kide den aldetik, kultur prozesu kolektiboan parte hartzen du eta haren garrantzia truke komertzial hutsetik askoz haratago doa.

Lanaren gaiaren eta gai horri dagozkion artelan kopuruaren arteko erlazioak ere badu zerikusirik honekin guztiarekin. Zentroen definizio profesionalean merkatuarekiko erlazioak berebiziko garrantzia izaten du eta hor, artelana jendearen gogoan sartzeak lanak berak adinako garrantzia izaten du. Horrenbestez, erakusketak antolatzeko garaian aurkeztutako lanek osotasun koherentea izateko ahalegina egiten da. Lan horiek serie moduan antolatzen dira, ahal dela, edo “gaia eta gai horren aldaerak” bezala, bestela. Irudia jendearen gogoan sartu eta oroitua izateko aukera ematen du horrek, eta horixe da lortu nahi dena. Arte-merkatu garrantzitsurik gabeko kulturetan, eta artisten arteko lehia oso apala den kasuetan, denbora alferrik galtzea izaten da horretan saiatzea. “Denbora komertziala” (edo irudi bat inposatzeko behar den denbora) erabiltzeko eta ulertzeko modu desberdinek eragina dute “formula artisitikoaren” definizio zehatzean ere, edo artista bat bere lana errepikatzen ari dela erabakitzeko garaian. Horregatik gertatzen da kultura periferiko kapitalistetako artisten artean gehiago izatea ibilbide eklektikoa dutenak. Denbora bestelako ikerketetarako erabili daiteke kultura horietan eta, horren ondorioz, periferiako artisten lanak maizago aldatzen du norabidea zentroko artistenak baino. Batzuen eta besteen arteko aldearen ondorioz desberdina izaten da interpretazio mota eta lanen potentzial historikoa bera ere. Zentro kulturalen berezko aurkikuntza eta asmakuntza estetikotzat jo izan direnen aurretik sortutako lanak ez dira historiarako gordetzen askotan. Inposatzeko behar besteko indarririk izan ez zutelako edo historia hegemonikoa idazten dutenak etnozentrismoak jota daudelako gertatzen da hori, baina ez horregatik bakarrik, baizik eta artista haiek erregistro dokumental egokia eskuratzeko adina errepikatu ez zirelako ere.

Kulturaren ikuspegi orokorretik begiratuta, artista bat zer den (sortzaile sistematikoa, xamana, artisaua nahiz bizilaguna) inguruko definizio zehatzak ez du garrantzi handirik. Haren lanak duen eragina da garrantzia duena, historia idazten duenarengan duen eragina, azken batean.

Begirada arkeologikotik kanpo gelditzen diren gainulertuen parte da orain arte esan dugun guztia. Horregatik da garrantzitsua dialektoaren metafora, nahiz eta “arte jantziaren” esparruan dialekto hori berez hizkuntza kolektiboa izatera iritsi ez. Artista izendapen batzuen arabera (nazionalitatea adibidez, nortasunaren adibide indartsua baita hori) identifikatzen den eta identifikatzen duten heinean, izendapen horiek artistak jomugan duen publikoa ere definitzen dute. “Nori mintzo natzaio?” eta “Nori saltzen diot?” galderekin nahiz bien arteko konbinazioarekin zerikusia dute baldintza horiek. Dena den, artistak haien herrialdearekin gogorki identifikatzen zirenean ere (sustraiak, tradizioa, pasaportea nahiz nazio-estatuaren sorkuntza chauvinistari atxikitako gainerako kontzeptuak oinarritzat hartuta), ideia haietan bizi zirenen arteko gutxi-gutxi batzuk baino ez ziren artista haien benetako publikoa. Artelanen oinarrian dauden konbentzio eta gainulertuak —berrespen-plataformatzat nahiz erronka baten xedetzat hartu— muga geografikoek hartzen dutena baino biztanleriako multzo askoz txikiago bati dagozkie. Gizarte-klasearen definizioak neurri handi batean baldintzatutako multzoa izaten da hori. Artean erabiltzen diren kontzeptuak, modernismoan erabili ziren moduan eta gaur egun erabiltzen diren moduan, klase ertainaren kontzeptuak dira funtsean. Halatan, mugak zeharkatzen dituen sektorea da hori, askotan lotura handiagoa egoten baita herrialde desberdinetako klase ertainen artean herrialde bereko klase desberdinen artean baino. “Herri”-adierazpenekiko irekitasuna klase ertain aberatsak adierazpen horiek bereganatzeko egiten dituen ahaleginak baino ez dira izaten maiz. Zentro nazionala mugitzen da halakoetan, gauza homogeneousat ulertutako periferia nazionala ere besarkatzeko, baldintza zehatz batzuen barruan. Prozesu hori periferiako herrialdeetan

biziagoa izaten da, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan “klase erosleak” (comprador class) izenez ezagutzen zenarekin gainjartzen baita hango intelligentsia. Termino hori britainiar kolonialismoaren “zeharkako gobernu” izendatzeko eufemismo gisa sortu zen, baina, halere, izendapen interesgarria da, berez klase erosia adierazi nahi bazuen ere, klase haren eroste-ahalmenari buruz ere mintzo zaigulako terminoa. Klase aberatsen kontu honetan beste begirada arkeologiko bat gehiago sartzen zaigu, interpretazioak nahasi eta zailtzen dituen beste tipula-geruza baten moduan. Artea esparru abstraktu eta itxia izango balitz, matematikak bezala, jabetza kolektiboko esparrua izango litzateke, eta inork ez luke beretzat aldarrikatuko (joera lokalista edo chauvinisten bidez), eta funts komun bat sortzen lagunduko luke jende guztiak. Arteak ez du horrela jarduten, ordea. Komunikazioa izanik, beti dauzka gainulertu lokal eta komunitario batzuk, eta nortasun eta kidego kulturalak sendotzeko betebeharra dauka, nortasun eta kide horiek hedatu eta aberastearekin batera. Axiomatikoak izatea nahi dugun ideiak kodetzeko erabiltzen dira matematikak, baina dialektoek ez dute lekurik esparru horretan. Artea gutxitan saiatzen da axiomatikoa izaten eta are gutxiagoetan lortzen du. Arteak dialektorako joera izaten du normalean. Dialektoa lokalista eta are folklorikoa ere izan daiteke, edota asmo globalizatzailerako arte hegemonikoa. Baina hegemonikoa izan arren, ez du dialektorako joera galtzen, eta probintzianoa izaten da beti. Izan ere, inperialismoa botere askoz hornitutako probintziakeria besterik ez da. Erregio-mailako adierazpenak “nazioarteko arte” mailara iristeko, erregionalismo probintzianoak hegemonikoa izan beharra dauka, nazioartera zabaldu ahal izateko. Erregionalismo hori periferikoa bada, desregionalizatu egin behar du iragazki hegemonikoen bidez (aurreko hamarkadetan “kulturaniztasunarekin” gertatu zen bezala), eta gainulertuak galdu behar dituela onartu beharko du ezinbestean. Orduantxe izango du aukera erregionalismo hegemonikoaren barruan onartua izateko, eta orduantxe parte hartu ahal izango du nazioartera zabaltzeko prozesuan, modu dosifikatu eta kontrolatuan bada ere. Integrazioa, baina, ez da inoiz erabatekoa ez akritikoa, arte hegemonikoa biziberritzeko erabilgarritzat jotzen diren elementu formalak onartzen direlako bakar-bakarrik, jatorrizko testuinguruan indarrean zegoen osotasuna kontuan hartu gabe. Sinkretismoaren atzeko aurpegi hegemoniko gisa definitu genezake prozesu hori. Begirada arkeologikoaren aurrean ez nabarmentzeko eta aurrera egin ahal izateko teknika da sinkretismoa, hain zuzen ere. Horren bidez, sinkretismoak esanahi berriak ematen dizkie irudi egokiei, baina hemen esanahiak ezabatu egiten dira egokitzapen osoagoa lortzearren. Artista ez-hegemonikoak begirada arkeologikoaren aurrez aurre bizi dira gaur egun, haiek jabetu ala ez, eta begirada horri erantzuten die haien lanak. Hobe litzateke arazo honetaz jabetu eta jarrera jakin baten arabera jokatzea. Orduan argiago jakingo genuke mimetismoak gure lanean zer-nolako eragina duen, begirada arkeologikoarekin zer-nolako erlazioa dugun eta gure lana zenbateraino den estrategiaren edo kutsaduraren emaitza, eta nola kokatuta gauden zentroaren aurrean norantza bertikalean eta ez-zentroaren aurrean norantza horizontalean.

- Elso gazterik hil zen leuzemiak jota, eta bere lanak prestatzeko moduak beharbada eragina izan zuen haren heriotzan, santeroen iritziz.
- Kultura periferiko kapitalisten eta ez-kapitalisten artean egiten dudan bereizketaren bidez tradizio estetiko jakin bati eutsi nahi dioten kultura ez-lehiakorrak (tribuen kulturak) eta indibidualitatea eta lehia bultzatzen duten kulturak bereizi nahi izan ditut.
- Termino hau kolonialismo ingelesak erabili zuen Afrikan eta Asian. “Desarrollismoa” izan zen horri erantzunez sortu zen terminoa. 1955ean Bandungen egindako Biltzarrean proposatu zen bigarren termino hori, haren balioakide neo-kolonialistari aurre egiteko.

The Archaeological View Luis Camnitzer

The declaration that shape is what surrounds the work and therefore is what makes first contact with the observer is obvious to the point that we feel it's barely worthy mentioning. Nevertheless this fact and its implicit and literal superficiality determine not only the relationship that we establish with the work but also artistic theories from most of the 20th century. This is a type of contact is consistent with the attitude of judging a person on your first visual impression of them and letting these immediate prejudices dictate all later behaviour, including racism. In the field of art, we could even talk about aesthetic racism (anti-realism, or anti-abstractionism for example) or in other words a superficial judgement leading to immediately discarding something after just a fleeting glance. The first step in this contact involves the observer's decision to keep on looking or to overlook it. If you are not well-informed about the needs which determine a particular way of "wrapping" the work – either due to embarrassment or ignorance – you are left contemplating a skin (or make-up) and the superficial reading is all there is, hitting a wall which, by decision, neglect or ignorance, becomes impenetrable. In its most benign interpretation, it is the same type of reading a two year old child makes when given a present. They start to play with the cardboard box until their parents make then open it to see, appreciate and show thanks for what they consider to be the real toy, the true present. I cannot say that I am completely innocent of these sins. I do not believe that I can spend more than an hour and a half looking at a (good) show with two hundred pieces. This works out to be an average of 27 seconds per piece, unless I find a video of some sort which will grab more than its fair share of my time. It is possible that some pieces require more seconds, and there are others which I rule out after merely glancing at them. I am not, therefore, so different from that two year old child. The difference is that on the one hand, as an artist, I attribute myself x-ray vision like Superman which means I can see through this type of "wrapping paper" surrounding the work (composition, finish and profession), and on the other hand, the artist knows that the observer's gaze tends to be impatient and therefore uses reasonably accurate codes of seduction. However I would say in general we are all – experts and not so expert – grappling with an infantilised view of things.

The superficial approach to works of art is therefore something which is produced, a fact, with several consequences. It is not just reduced to exemplifying in incomplete or interrupted communication with the work itself as in the previous cases. On the one hand it is conditioned by the language which the artist administers, aware of the short time given over to contemplation. But it also has consequences when art is used as a vehicle for intercultural communication.

When art crosses cultural borders it can do so as a multi-directional flow, making it culturally positive, or as infiltration if the flow is one-directional. This is the difference between exchange and colonisation. This is where reading or lack of reading of the work stops being a lazily benign act and rather diverts communication to comply with certain interests. The colonising process generates reading with a determined projection through the zone with the power and aims to oblige artists to make their presentation comply with this projection. This creates what I would like to call an *archaeological* view of art. It is the view that, grappling with the wrapping, without knowing exactly how much to take off and how much to project, draws general conclusions that will be accepted as truths. It will then export these conclusions to the sources so that discourse can be adapted.

One of the dynamics which promotes this view is the belief that art is a universal language with absolute values. The belief has a certain paternalist aroma. It ignores the fact that there are contents and evocations which are much more particular than what would be determined by universality and that these are fundamental for the work to have some kind of meaning and effect. Even when this refers to avoiding contents and cancelling evocations, mysteriously both insist on remaining and continuing to interfere. When there is no text, some subtext still remains, and more underneath that and so on and so forth.

The active presence of these subtexts anchors the work within a context which is determined by implications. These implications are accessible to the public defined by whoever is communicating through the work, artist or not. This is how even the most universal language always ends up subdivided into dialects. Not knowing about these elements means that contexts might change, insensitive to distorting the work, providing readings which seem coherent but are a far cry from the original meaning and the total impact. They impose an incomplete reading and this is the effect of what I am calling here the archaeological view: a type of clumsy if not false mediator. The archaeological view is introduced when the problems expressed by the work of art are collective and the work is perceived by a collective which is not the original audience. In the best cases, the archaeological view aims to unravel intention through reading the shape. But this is archaeology and not a decoding process (which mainly happens when art is read within the culture which generates it) for two reasons. Firstly, because there is a contamination in the reading caused by the reader's projections and interests and secondly, because there are implications which do not survive the journey between cultures.

It could be said that the push towards a uniform global culture aims justly to correct these problems. If we all live in the same culture, mutual comprehension remains well-oiled, without any projection obstacles or misunderstandings. The archaeological view would disappear, implications would be shared and we would just be decoding. We would then achieve this universal art with absolute values which is being preached. Paradoxically, however, the push towards internationalised art does not build this "great collective" we aspire to. It only manages to destroy the small collectives. We cannot deny that universal art would grant independence to culturally and geographically borderline art. But we have to also consider that, in our capitalist and competitive cultures, ideological assumptions state that art is primarily a product of an individualist expression. Cultural programming is merely a way of compiling these expressions statistically. Therefore this global community which we aspired to, in accordance with art, is nothing more than an accumulation of individuals. As statistics give priority to powerful collectives, this definition has already given us ethnocentrism and ideological distortion. It might be affirmed that effectively today, the world slowly is moving towards becoming a society based on accumulated individuality instead of community structure. However, we are still living in a poly-cultural world with different perceptions of individual, collective and the limits between the two. Not even comparing the United States with Canada or with Western Europe – its closest economic and cultural colleagues – would give a unitary profile. The problems become dramatically more acute if we compare underdeveloped countries with developed countries, without even mentioning the tribal societies that live excluded from the operative definition of "art". The ideology which operates within this vision of a global society constituted by the accumulation of individualities is actually an extension of the liberal capitalist

.....
individualism of the 19th century. It is a definition which was dressed up at the time with romanticism and bohemia and nowadays also shares some characteristics of the uncontrolled free-company. In many cases, this prevents us from being able to talk about real individual expression or, a little more ambitiously, about investigating and expanding knowledge (which, at the end of the day, is the true function of art). In exchange we have to recur and limit ourselves to the notion of the mega-show. The mega-show is a product combining formalism with the search for high stimuli intensity. This is something which is made up of what, in curator-speak, we could call “small ideas in large format.” This combination occupies the place which really belongs to density and complexity. The result is something which has nothing to do with expression or a contribution to collective knowledge.

But getting back discussing context, this affects contents and evocations, and these in turn invariably reflect impenetrable localisms. Several years ago, a South American artist was explaining in great detail to a North American gallery owner how he used breast milk to paint his pictures. The gallery owner listened patiently and after a long pause, he commented: “Did you ever think about using white acrylic paint?” Meanwhile, the Cuban artist, Juan Francisco Elso Padilla, who followed voodoo rites, used to “prepare” the inside of his sculptures with his own blood. This makes you wonder if ‘voodoo’ friends advised him not to do this because they thought that there are certain things you shouldn’t do if you’re not an expert.¹ Nor did it occur to any of them to suggest the use of red acrylic paint.

Of course the expanding concept of society as an accumulation of individuals is slowly eating away at communal links. So the world does not unify in a common search for comprehension. All that remains is the consumption nexus and everyday incomprehension disguised in polite dialogue. This is how we have ended up with impoverished and schematic language which will then determine what is permissible in art and what is prohibited. The consequence of this is that it prioritises intermediate impact, the message which is resolved in a single phrase, ingenuity of the technical resource. And this is not a question of ideology, separating reactionaries from progressives. The same simplism spreads both among those who wish to activate and reform society and among those who search to keep it how it is and/or encourage profit. It is not the underlying intention that became narrower and schematised, but the available language (the new culture) and the horizon which imprisoned it.

It is here where preserving dialects becomes an act of resistance. Dialect, without necessarily meaning isolation, emphasises a community communicative link and responds to immediate and tangible situations. It is true that the process which creates dialects also involves deforming the mother tongue. However, it is more importantly the linguistic reflection of the subgroups’ needs and customs which operate within this mother language, becoming one of the parts which define natural cultural autonomy which any group develops in its everyday activity on the margin of the power structure. This is maybe why some historic moments display prohibited languages, obligatory languages or when cultures are annihilated there are languages which disappear along with the knowledge which they held.

Dialect can possibly be considered a separate language, even if it can still communicate with its matrix language. In the USA they still assume that they are using the English language. In Europe, more accurately, translations of written works in English from USA appear as “translated from the American.” This is an interesting difference because on

.....
the one hand the term removes the myth from any language usurping, but on the other hand it respects the imperial dream of the north when it falsely appropriates the word “American” to talk about the whole continent.

In its own way, the process of forming dialects (and their deaths) also occurs in art. There are implications capable of transcending original dialect and there are implications that the archaeological view is not capable of eviscerating. It is here, as a reaction to these problems, where a new classification of artists can probably be created. These are the artists who attempt to minimise the local implications to transcend the local aspect and turn an archaeological view into an objective view. In this group, in turn, there are those who manage this and those who only believe that they manage it: those who end up speaking fluently compared with those who stutter but do not realise. The inevitable example of Henry Kissinger, with his outrageously correct English soaked in a German accent he simply could not lose, can be used to understand that hegemony also prefers its ‘natives’. And among those who manage to pass themselves off as hegemonic natives there are, meanwhile, people who do it only to adapt to the hegemonic scale of values, and on the other hand, people who focus on problems that have general validity and for which any trace of dialect will act as an obstacle for perfect communication.

Nevertheless there are the artists who are more interested in strengthening community links and creating implications. For them, dialect is an integral part of this form of communication. It is at this point where the topic of identity makes its dramatic entrance. They are the artists who, by attempting to reinforce the links which nourish and arm the community, are articulating and perfecting their dialect. With this they help to shape collective identities. On the other hand there are the artists who take aspects of identity which are already known and they use them to fill multicultural demand quotas in hegemonic centres. In all of this there is a type of fragile ecological equilibrium where any abuse or poor use of power will bring down the community cultural building to substitute it with an artificial culture.

One of the symptoms of the force of hegemonic power and the substitution process is that much of the discussion on art, obviously including resistance to hegemony, is formulated in relation to cultural centres. This relegates the horizontal relationship between non hegemonic cultures into the background. Deep-down, all these things are profoundly related to the way in which the distribution of power works, so there is often a much stronger connection between zones that, at a cultural expression level, seem distant but are alike in terms of having or not having power, than among areas which have power or those which don’t. Negligence is therefore serious, because there are therefore shared implications among periphery cultures even when they do not speak the same language. And on the other hand, there are implications that cannot be understood between cultures which use the same language. The suffering caused by occupation, exploitation, and mandatory submission very often creates much stronger brotherhoods than geographic proximity or a common language. If art is a methodology to respond to and resolve problems and to give shape to proposed solutions, much more than the similarity of the formal resources used, it is this community in experiencing problems which creates the sounding board. It is a sounding board where certain local implications, even when not completely understood outside the context, still evoke metaphors that can operate as a lever in a new context.

But despite this and even in these cases, there is always an inaccessible area. The

majority of work is handled in blurry areas which are created among all these categories and this is where the real sounds which the work originally tried to achieve are lost, more or less, for the person looking at it. Even when a political situation seems to be reproduced half a century away, generational perceptions and strategies can no longer be the same and they have to be reinvented instead of copied. The same happens with art, where the artistic response is not only conditioned by an objective situation but by how this situation is perceived and contextualised. The observer's sympathy can travel through time, but it travels on the sympathiser's projection. It is at this moment that it is important to differentiate between the literal presence and the metaphor applied like a lever. In our western cultures, art is a mechanism for subversion (it subverts the conventions and stereotypes which lubricate everyday social workings which tend to prevent fresh perception and the act of marvelling). A reading limited to literal presence, a reading created by an archaeological view, tends to eliminate the possibility of subversive metaphor.

Up to a certain point we have all taken in the hegemonic tradition of seeing an object of art as a closed container instead of understanding that it works like a sound designed to reverberate within a very specific sound box. If this box is changed (in this case the cultural context), the sound also changes.

But it goes much further than that and reaches the very definition of who the artist is and what their role comprises. The archaeological view's problems are not only limited to formal simplification or superficial topic-based reading. They are all also influenced by the impossibility of finding exact understanding for the varied definition of the artistic professionalism which rules over different cultures and economies. So for example, from the point of view of the dominant cultural centres a "Sunday artist" is someone who does two jobs during the week to be able to survive on a daily basis and who uses their little remaining time to produce art.

Being a Sunday artist constitutes a symptomatic situation with several interesting aspects. One of these is precisely the ideology which the concept itself represents. Following this ideology, an artist is a producer of mercantile objects, and if they do not dedicate the majority of their waking hours to this production they lose the right to be considered a professional producer. Using only part of their time makes them a superficial amateur and their activity becomes merely a hobby or a pastime.

However, in less affluent societies, artists who only produce work in any free time they can find are perceived as artists and not a usurper to the name. There "artist" and "Sunday artist" are synonyms and the only condition which must be met is to periodically maintain visibility. Whilst in the cultural centres an artist who does not exhibit regularly disappears from the market (the same happens with a commercial company in bankruptcy), in these societies there is sufficient confidence both in the activity and the person to maintain their reputation. This confidence represents another type of ideology: one where the artist is a member of society and not necessarily the market. As such, they contribute to the collective cultural process and its importance goes far beyond that of commercial exchange.

This topic also connects the relationship which exists between the topic of work and the quantity of work relevant to this topic. In the professional definition of the centres, where the relationship with the market is fundamental, the problem of imposing the work in the public's mind is as important as the work itself. Therefore an exhibition tends to be organised so that the pieces present a coherent whole. They are preferably

organised as a series or as a "theme and variations." This permits (and attempts) to fix the image in the public's mind and make it memorable. In cultures without an important artistic market and in a situation where competition between artists is very low, this insistence seems to be a waste of time. The use and diverse perception of "commercial time" or the time required to impose an image, also affect the precise definition of "artistic formula" or when it is considered that an artist is repeating themselves. This can explain the greater presence of eclectic paths by artists from periphery capitalist cultures.² The same time here can be used in other investigations and as a result the work of artists in the periphery changes course more frequently than in the centres. This difference changes both the type of reading and also the historical potential of the work. Works which frequently precede what are considered to be discoveries and aesthetic inventions from the cultural centres are not recorded in history. This happens, not only because they are lacking the necessary imposition or because those writing the hegemonic history suffer from ethnocentrism, but also because the artists did not repeat themselves enough to achieve an appropriate documental record.

From a general cultural point of view, the precise definition of what constitutes an artist does not seem to be very important (systematic producer, shaman, craftsman or neighbour). What matters more is the impact of their production, and in the last instance, the impact this has on whoever is writing history.

